

ALTZA - BARATZEA

Baratze ekologikoa Molinaoko bidean



Proiektu hau **CARITAS GIPUZKOA**ren ekimenez sortu da, eta **bazterketa-arriskuan** dauden pertsonen zuzendua dago. **Harrera egitea, gizarteratzen laguntzea** eta **baratze-lanetarako prestakuntza** ematea ditu xede.

Epe ertainera, gizarte-hezkuntzaren arloko helburua da erabiltzaileen **sustapen pertsonala** lortzea, eta horrekin batera, **autonomia ekonomikoa** eskuratu dezatela proiektu honetan, baratzean bildutako produktuak merkaturatuz.

Eremu horretan, badira nekazaritzako zenbait ustiategi txiki (batzuk erabiltzeari utzita, eta erreleboa hartuko duen hurrengo belaunaldirik gabe). Parte-hartzaileentzako **lan-aukerak** aztertu nahi ditugu.

Nabarmena da jendeak gero eta estimu handiagoan dituela **kalitatezko produktuak** (ekologikoak) eta **hurbilekoak** (0 Km), eta gero eta kontzientzia sozial handiagoa dagoela halakoak kontsumitzeko.

Hori guztia dela eta, baratzea baliabide ezin hobea da gure helburuak betetzeko:

- **Parte-hartzaileak gizartean eta kulturen integratzea.**
 - **Baratzea kudeatzeko autonomia eskuratzea.**
 - **Lan-munduan txertatzea.**

Gure produktuak erregulariki kontsumitzeko interesa izanez gero edo zure esfortzu nahiz ezagutzarekin lagundu nahi baduzu... Dei iezaguzu:

943 44 07 44 - ekonomiasolidarioa@caritasgi.org